



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN 2024KO ABUZTUAREN 8KO ERABAKIA

Egun horretako bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak hauxe erabaki du:

Gai-zerrendako puntu bakarra,

Bilboko Udalaren eskaerari erantzuteko, testu hau onartzen da:

“Lehenengo puntua.- Bilboko Udaleko Alkatetza Udalburutzak igorritako jakinarazpena dela eta, abuztuaren 5ean jaso genuena, Batzorde honek, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bateginak 17.2.b) artikuluan ezartzen dizkion eginkizunez baliatuz, erabaki du ofizioz eta nahitaez ikertzea Bilboko Udaltzaingoak 2024ko abuztuaren 2ko 05:50ean Erronda kaleko 5 zenbakiko higiezinaren parean egindako jarduketa.

Jarduketa polizial horretan pertsona batek lesioak jasan zituen, polizia jarduleak erabilitako suzko armen ondorioz.

Esku hartze polizial hori ikertzen hasteko, erabaki da Bilboko Udaltzaingoaren Burutzari hauek eskatzea:

a. Batzorde honi informatzeko jarduketa horretan parte hartu zuen Udaltzaingoko unitatearen eraketari buruz. Horrez gain adierazi behar dira jarduketaren arrazoia eta xedea, jarduketa burutu zuten polizien kopurua, suzko arma erabili zuen poliziaren graduazioa, baita erabilitako suzko armaren ezaugarriak ere.

b. Batzorde honi igortzeko Burutza horrek ematen duen barruko txostenaren kopia, horren barruan hauek guztiak zehaztuta:

ACUERDO ADOPTADO EN LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO, EL 8 DE AGOSTO DE 2024.

En la reunión de la fecha indicada, por la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, se decidió:

Punto único del Orden del día,

Se prueba el siguiente texto de contestación a la solicitud formulada por el Ayuntamiento de Bilbao:

“Punto Primero.- Dada cuenta de la comunicación remitida por la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Bilbao, recibida en pasado día 5 de agosto, esta Comisión en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, acuerda proceder de oficio, con carácter preceptivo, al estudio sobre la actuación desarrollada por la Policía Municipal de Bilbao sobre las 5:50 horas del día 2 de agosto de 2024 a la altura del inmueble señalado con el número 5 de la calle Ronda. Actuación policial en cuyo desarrollo se produjeron lesiones a una persona, causadas por arma de fuego empleada por la policía actuante.

A fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida, se acuerda interesar de la Jefatura de la Policía Municipal de Bilbao:

a. Informe a esta Comisión sobre la composición de la unidad de la Policía Municipal que intervino en la actuación objeto de la comunicación. Con indicación del motivo y del objeto de la actuación, del número de policías que la llevaron a cabo, de la graduación del policía que hizo uso del arma de fuego; así como de las características del arma de fuego empleada.

b. Remita a esta Comisión copia del informe interno que se emita por esa Jefatura en el que se reseñe:



Gertaeren eguneko jarduketa polizialaren inguruabarrak, polizia esku hartzaileen edo hirugarrenen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrazoizko arrisku larria egon zela adierazten dutenak. Jarduketa polizialean esku hartu zuten pertsonen dagokienez, hauek ere adierazi behar dira: kopurua, inguruabar profesionalak eta beren jarduketaren garapena.

Era berean, adierazi behar da agente jarduleak esku hartzen ari ziren bitartean Aginte eta Kontrol Zentroarekin komunikatu ziren gertaera horien inguruabarrez hitz egiteko. Horrela izan bazen, eskatzen da Batzordeari komunikazio horien transkripzioa emateko.

Bigarren puntua. - Gertaera berberekin lotuta eta erabakitako ikerketa egiteko, Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bateginak 19.3 artikuluan ematen dizkion ahalmenez baliatuz, erabaki du Ertzaintzako Zuzendaritzari eskatzea datu eta dokumentu hauek eman diezazkiola:

- a. Batzorde honi informatzeko ikerketa-jarduketa judizialen irekierari buruz, horiek gauzatzen ari den epaitegia eta horien erreferentzia-signatura adierazita.
- b. Batzorde honi helarazteko, Bilboko Udaltzaingoak 2024ko abuztuaren 2an Erronda kalean goizaldean burututako jarduketa dela eta, Ertzaintzak instruitzen duen atestatu polizialaren kopia bat. Izan ere, jarduketa horretan pertsona batek lesioak jasan zituen suzko armen erabileraren ondorioz.

Eta hala jasota gera dadin, Batzordeko idazkariak ZIURTAGIRI hau ematen du, sinadura digitalaren datan.

Las circunstancias en las que se desarrolló la actuación policial el día de los hechos que definen la eventual concurrencia de un riesgo racionalmente grave para la vida o integridad física de los policías intervinientes o de terceras personas. Con indicación, en relación con las personas que intervinieron en la actuación policial, de su número y circunstancias profesionales, así como del desenvolvimiento de su actuación.

Igualmente se indique si a lo largo de la intervención se efectuaron comunicaciones de los agentes actuantes con el Centro de Mando y Control sobre las circunstancias concurrentes. En ese caso, se solicita que facilite a esta Comisión transcripción de dichas comunicaciones.

Punto Segundo. - En relación con los mismos hechos y para la realización del estudio acordado, la Comisión, en ejercicio de la atribución prevista en el artículo 19.3 del Texto Refundido de la Ley de Policía de la Comunidad Autónoma, acuerda recabar de la Dirección de la Ertzaintza la facilitación de los siguientes datos y documentos:

- a. Se informe a esta Comisión sobre la incoación de actuaciones judiciales de investigación, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signature de referencia de las mismas.
- b. Se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado policial que se instruya por la Ertzaintza en relación con la actuación desarrollada por la Policía Municipal de Bilbao en la madrugada del día 2 de agosto de 2024 en la calle Ronda de dicho municipio, en cuyo desarrollo se produjeron lesiones a una persona causada por arma de fuego.

Y, para que así conste se expide la presente CERTIFICACIÓN, por el Secretario de la Comisión, en la fecha indicada en la firma digital.